

## IPAR EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA ERAGILEEN ADIERAZPENA

### ESKUIN MUTURREKO MEHATXUAREN AITZINEAN

Europako azken hauteskundeen emaitzak ikusirik eta Macron presidenteak legebiltzarreko hauteskundeak ekainaren 30eko eta uztailaren 7ko iragarri dituenetik, eskuin-muturra ez da sekulan Frantziako Estatuan boterea hartzetik hain hurbil izan.

Guretzat, euskararen transmisioan, erabileran eta sustapenean lan egiten dugun Ipar Euskal Herriko erakundeontzat, perspektiba hori onartezina da. Balio demokratikoei, humanistei, solidarioei eta aurrerakoiei lotutako egitura gisa, elkarrekin berresten dugu:

- Euskal Herrian eta mundu zabalean hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko dugun **engaiamendua**,
- Gurea bezalako hizkuntza komunitate gutxituen hizkuntza eskubideen alde lan egiteko dugun **kompromisoa**,
- Euskarari etorkizun duina eskaintzeko lanean jarraitzeko dugun **asmoa**.

Gaur deialdi horren jatorrian den Euskal Konfederazioarekin juntatzen gira, jendartean hedatzen ari diren ideia xenofobo, bazterzaile eta zatitzaleek kezkatuak. Euskararen alde eramatzen dugun lana, ez dugu iragan idealizatu baten izenean egiten, baizik eta guretzat eta biharko belaunaldientzat etorkizun hobea eraikitzeo, nun eta **euskara inklusio, komunikazio eta kultura tresna izanen den biztanle guztientzat**, edozein izanik ere beren jatorria.

Ez gaitezen nahastu: eskuin muturreko alderdiek defenditzen dituzten balioak eta proposamenak gure egituretan egiten dugun transmisio, inklusio eta bitartekotza lanaren antipodetan dira. Horregatik lehentasun absolututzat jotzen dugu ez daitezela sekulan boterera iritsi. Baina zorigaitzez, uniformizazio linguistikoaren dinamikatik ateratzeko oraindik bidea luzea dugu; alderdi handi gehienek logikan, hizkuntza hegemonikoek bakarrik dute espazio publikoan bizitzeko eskubidea. Horretarako, **munduan biziberritzen ari diren hizkuntzen geroa lokalki eraginez eta gaia globalki kokatuz pasako da**.

Testuinguru nahasi honetan, inoiz baino gehiago behar dugu:

- Lurralte-hizkuntzen transmisioa, erabilera eta balorizazioa errektuko duen konstituzio aldaketa eta lege **koadro berria**,
- Euskalgintzak bere lana duntasunez egin ahal izateko **baliabideak**,
- Hizkuntza biziberriztearen erronka elkarrekin gainditzeko **adostasun soziopolitiko sendoa**.

Gure borroka, elkarbizitza hobetzen laguntzen duen jendarte erronka da. Arrazoi horiengatik guztiengatik, Euskal Konfederazioak bultzatutako adierazpen honen sinatzaile garenez, deitzen ditugu:

1. **Euskal Herriko herriarrak mobilizatzera eta eskuin muturreko alderdien aurka karrikan zein hautestontzietan mobilizatzera.**
2. **Euskal herriko erakundeak jendarte inklusiboago, solidarioago eta euskaldunago baterako lanean segitzera.**

## DÉCLARATION DES ACTEURS LINGUISTIQUES DU PAYS BASQUE NORD

### FACE A LA MENACE DE L'EXTRÊME DROITE

Au vu des résultats des dernières élections européennes et suite à l'annonce du Président de la République Emmanuel Macron de la tenue d'élections législatives anticipées les 30 juin et 7 juillet prochains, l'extrême droite n'a jamais été aussi près de prendre le pouvoir en France.

Pour nous, organisations du Pays Basque Nord œuvrant à la transmission, à l'usage et à la valorisation de la langue basque, il s'agit-là d'une perspective à laquelle nous ne pouvons nous résoudre. En tant que structures attachées aux valeurs démocratiques, humanistes, solidaires et progressistes, nous réaffirmons ensemble :

- **Notre attachement** à la diversité linguistique et culturelle ici et à travers le monde,
- **Notre engagement** à œuvrer en faveur des droits linguistiques des communautés linguistiques minorées comme la nôtre,
- **Notre détermination** à poursuivre notre travail afin d'offrir un avenir digne à la langue basque.

Aujourd'hui, inquiets par la montée des idées xénophobes, de division, d'exclusion, de repli sur soi et de rejet de l'autre, de nombreux acteurs de terrain s'associent aux membres de la fédération Euskal Konfederazioa à l'origine de cet appel. Notre combat en faveur de la langue basque, nous ne le menons pas au nom d'un passé idéalisé mais bien pour bâtir un futur plus désirable pour nous et pour les générations futures, où **l'euskara sera un moyen de communication, d'inclusion et de culture pour tous·tes ses habitantes**, sans aucune distinction.

Ne nous y trompons pas: les valeurs et propositions portées par l'extrême droite sont aux antipodes du travail de transmission, d'inclusion et de médiation que nous menons au sein de nos structures respectives. C'est pour cela que la priorité absolue reste de leur barrer la route du pouvoir. Mais malheureusement, il nous faudra encore batailler longtemps pour sortir de la logique de l'uniformisation culturelle où seules les grandes langues peuvent s'épanouir pleinement dans la société. Plus que jamais, **l'avenir des langues en voie de revitalisation passe par une action locale et un schéma de pensée global**.

Dans ce contexte de remise en cause générale, nous avons plus que jamais besoin :

- D'un **changement de Constitution** et d'un **cadre juridique** sécurisant davantage la transmission, l'usage et la valorisation des langues territoriales minorées,
- De **moyens** pour que les acteurs de terrain puissent accomplir leurs missions dignement,
- D'un **consensus socio-politique** fort pour relever ensemble et de façon pérenne, le défi de la revitalisation linguistique.

Notre combat est un enjeu de société qui contribue au mieux vivre-ensemble. Pour toutes ces raisons, en tant que signataires de cette déclaration impulsée par Euskal Konfederazioa, nous appelons:

- 1) **la population du Pays Basque à se mobiliser dans la rue et dans les urnes** contre les partis d'extrême droite dont la haine, le racisme et la xénophobie constituent le fonds de commerce.
- 2) **les organisations à poursuivre leur travail pour un Pays Basque plus inclusif, solidaire et euskaldun.**

## Izenpetzaileak / Signataires

AEK - Artetxea - Bai euskarari – Basaizea - Bertsularien lagunak - Biga Bai - Euskal Hedabideak - Euskal Moneta - Euskara Geroan - Gogaide - Ikusi & Ikasi - Ipar Euskal Herriko Euskaltzaleen Topagunea - Jakinola - Konkolotx - Mintzaian - Mintzalasai - Ote Lore - Plazara - Seaska - Uda Leku - Urzaiz – Zabalik



**hedabideak**  
BASQUE COMMUNICATION



